

## GERHARD BÄHR, EUSKALARIA

*Legazpi, 1995-04-29*

*José Antonio Arana Martija*

Legazpiko seme kutun honen biografiaz eta lanetaz zerbait esana da eta esatera noa. Euskal literaturaren historiako liburuetan ez du inork pertsonaia hau baztertu eta ahaztu. Eta ikerketa sakonagoak ere eginak dira, 1984.eko irailan bertan argitaratu zen *Legazpiko idazleak* liburuxkan, eta luze-zabalago *Ene bada!* aldizkariak 1991.eko irailean kaleratu zuen alean eta *Hots* aldizkariak argitaraturiko *Artikulu bilduma* liburuan. Gaur hemen esandakoak ere lagungarri izango dira gizona eta bere lana zehatzago ezagutzeko, heriotzearen mende erdia ospatzen dugularik. Baina ez dut uste honetan geratu behar garunik. Bost urte barru ospatuko dugu jaiotzaren mendeurrena (Udana, 1900.5.6) eta ordurako zerbait mamitsuago prestatzen hasi beharko garelakoan nago, egingo omen diren ekintzetatik aparte omenaldi liburu bat ere, zenbait ikerlek prestatua, kaleratuz.

Alemaniano Friedrich Bähr eta Johanna von Daacke senar-emazteak etorri ziren Legazpira, duela ehun urte, Kataberako meategira. Zientzia alorrean oso aurreratua zen orduan Alemania, baina hizkuntzalaritzan ere —eta hau da aztertu behar duguna— han zegoen gunerik aurreratuena. Ezin ditugu ahaztu Johann Christoph Adelung (1732-1806) eta honen loba Friedrich Adelung (1768-1843) zeinek eman ziguten *Mithridates* izeneko liburuak, Lorenzo Hervas Panduro-ren (1735-1809) lanak jarraituz, “Gure aita” 450 hizkuntzetara itzulia eman zigutenak, tartean euskara zelarik. Obra honen bigarren tomoan euskarari buruzko ikerketak agertzen dira, Humboldték argitu eta gehitu zituenak. Jacob Grimm (1785-1863), Franz Bopp (1791-1867), Friedrich Schlegel (1772-1829), Friedrich Diez (1794-1876), August Schleicher (1821-1868), Friedrich Müller (1823-1900) eta beste izan ziren Alemanian hizkuntzen sailkapenak eta gramatikak aztertzen ari izan zirenak. Eta hauek jarritako oinarrietatik sortu ziren gero Frantzian, Ingalaterran eta Italian, gehien bat, izan ziren hizkuntzariak eta filologoak.

Baina gure euskal mundura etorrita, ez dira gutxi izan gure kultura eta hizkuntzarekin arduratu diren alemanak. Done Jakue bidean erromes joan zen Von Harff-ek eman zigun 1497an ezagutzen den hiztegiño zaharrenetarikoa. Wilhelm von Humboldték (1767-1835), Euskal Herritik bi bidaiak 1798 eta 1801ean burutu ondoren, Berlingo Unibertsitatea sortu zuen 1809an, eta bertan

utzi zizkigun euskararekiko hainbat ikerketa eta dokumentu baliotsuak. Gero etorriko ziren euskara aztertu zuten euskalari alemanak, hots, Karl Mahn, Göttingengo Unibertsitatean ikasketak egin zituen, gure Bähr-ek bezala, Arno Grimm, Georg Gabelentz, Rudolf Sprenger, J.A. Schmeller, Werner Bergman, Meyer-Lübke, M. Winkler, Juan Martin Schleyer, “volapuk” hizkuntza asmatu zuena, gure Julio Urkixorengan honen lehendabiziko ikerketetan eragina izan zuena, Viktor Stempf, Wilhelm Ziesemer eta abar. Baina guztien gainera azpimarratu behar ditugun ikerleak honako hauek dira: Theodor Linschmann eta Karl Hannemann, “Baskische Gesellschaft” edo “Euskal Elkarte” eta *Euskara* aldizkaria sortu zutenek, Hermann Urtel, 1923an euskara katedra Hamburgoko Unibertsitatean sortu zuena eta Göttingenen lanak argitaratu zituen, Karl Bouda, eta denen gainera, behar bada, Hugo Schuchardt, zeinen biografia eta lanak gure Bähr-ek argitaratu eta itzuli zituen. Zor handia dauka Euskal Herriak hauekin guztiekin eta norbaitek prestatu beharko du ikerketa bat, Julio Urkixok paratu zuen *Vascófilos ingleses* monografiaren antzerakoa.

Gerhard Bähr-ek, alemanen familiakoak, bazeukan aurreko eta berealdikorik euskararekiko atxekimendua izateko. Hautzarotan Legazpin euskara askorik ikasi ez arren, Alemanian batxilergoa bukatu ondoren Euskal Herrira itzuli zenean, buru-belarri ekin zion euskara ikasteari. Euskaltzaindia sortu berria zelarik, Azkue euskaltzainburuari euskaraz idazten dizkio gutunak 1920an hasita. Baina euskara meneratzeaz gain, ikerketa lanetan ere murgiltzen zaigu. *Legazpiko aditzaz*\* txosten bat prestatzen du eta Erraimun Olabide euskaltzainak irakurtzen du 1921.eko otsailaren 24ko osoen bilkuran. Lanaren balioa eta egilearen prestutasuna ikusi zuten bildutakoek eta euskaltzain urgazle izendatu zuten bilera horretan. Euskaltzaindiaren historian Bähr jauna izango da, behar bada, izendatua izan den urgazlerik gazteena, 20 urte zituen eta.

Urte bereko ekainean Göttingengo Unibertsitatara joan zen aitaren gomendioz natur zientziak eta kimika ikastera. Baina ez du mozten euskararekiko grina. Urgazlea izendatu eta handik urte betera, 1922.eko otsailaren 24an, Schuchardt-en *Baskische Studien* lanaren zati bat itzultzea eskatzen dio Azkuek, lana ordainduz, jakina. Orduan sortu zen Euskaltzaindiaren lehen bekaduna: 1922-10-26an 200 pezeta ordaintzen zaizkio egiten ari den lanagatik. Eta urte bereko azaroaren 2an bukatzen du itzulpen hau: “Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco” (BR SBAP, 1972, 217-337), Schuchardtek 1893an idatzia.

Hurrengo urtean, 1923an hain zuzen, urtarrilaren 26ko bileran, Schuchardt-en *Sarako euskara* lana itzultzea agintzen zaio. Eta agindua ondo betetzen du, apirilko 26/27ko bileretan Azkuek itzulpen hori irakurtzen baitu. Göttingenen apirilaren 14an bukatu zuen lan hori, “Zur kenntnis des Baskischen von Sara”, Grazeko irakasleak 1922an idatzi berria, “Sobre el vascuence de Sara” izenburuarekin itzulia (*Euskera*, 1992, I, 247-292). Baina ez da hori

\* “Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)” *Euskera*, 1925, 73-114.

egin zuen itzulpen bakarra. Orain arte izan dudan zalantza bat argitu zait Azkueri egindako gutunak irakurri ditudanean: 1923.eko martxoaren 3an igortzen dizkio *Latsibi* elaberriaren hiru lehen kapituluak gipuzkerara itzulita. Eta zera esaten dio: hurrengo urteko apirila/maiatza epean bukatuko duela itzulpena.

Bekadun gisa lan egiten zuela Bähr-ek esan dugu. Baina ez zen bera bakarra. 1923.eko apirilaren 26ko bileran zera irakur dezakegu:

Odon Apraiz, Aita Polikarpo Iraizoz ta Gerhard Bähr gure bekadunak batzarraldi batera betoz, Iztegi Aundiaren lanetan berri ta ikasbideak aitortu ditzaten, atzerri-ikastetxetan ikusi dutenaz.

Eta Bähr bekaduna etorri zen, bai, abuztuaren 8an egin zen bilerara. Udan ibilia zen Gipuzkoan zehar 39 herritan Azkueren *Erizkizudi Irukoitza* galdeketei erantzunak biltzen. Bidebatez, Gipuzkoako aditz-jokoak ere bildu zituen gero RIEV aldizkarian argitaratuak (1926-1931, 1934, 1935); baina ez zen dena argitaratu, gerrak moztu zuelako argitaratze hau: *Estudio sobre el verbo guipuzcoano: comprendiendo el presente e imperfecto de indicativo del auxiliar transitivo izan y de los verbos jakin, euki, ekarri, eraman, egon, joan, etorri en sus flexiones comunes y alocutivas*. Hogeita hiru urte zituen orduan gure ikerleak. Azaroaren 23an Donostian Euskaltzaindiak egin zuen bileran parte hartu zuen Bähr-ek eta agirian irakurtzen denez, “Schuchardt jaunari deritzaienez —esan zuen eta olbeltzean frogatu— euskal aditza pasivoa da”. Eguzkitza euskaltzainak bere aurkako iritzia agertu zuen orduan. Bilera horretan jaso zituen Bähr-ek 500 pezeta *Erizkizundi Irukoitza*-rako egin zuen lanagatik. Baina 1924.eko urtarrilaren 24ko bileran erabaki zen galdekizun bakoitzagatik 6 pezeta ordaintzea, eta 60 zirenez bete zituenak, 360 pezeta ordaintzea. Ordurako, abenduaren erdian edo joanda, Göttingenen zegoen. Ikasturtea aspaldidanik hasia zela adierazi zion Azkueri eta ahalegin handiak egin beharko zituela ikasketak ez atzeratzeko.

1924ko martxoan Friedrich aitak kobratzen ditu bekarako 500 pezeta eta apirilean berriz beste 500 pezeta. Ordurako Ormaiztegin zegoen familia. Uztailaren 21ean aitak sinatzen duen ordain-agiri baten (1.000 pezeta urtea bukatu arteko beka) kimika ikasketetik aparte filologiakoak ere hasi zituela semeak adierazten du. Ordurako beste lan bat ere hasia zeukan Gerhardek, hots, *Hiztegi Etimologikoa*, baina Larramendi, Astarloa eta Arana-Goiriren etimologiak baztertuz. Ez dugu tamalez ezagutzen lan hau. 1924 urte horretako udan oporrak Ormaiztegin bete zituen, Gipuzkoako aditzari ekinez. Hurrengo urteko martxoaren 24an aitak jasoko diut 1.000 pezeta, beka gisa, Göttingenen filologia ikasketak egiten ari den semearentzat. Eta 1924ko udan egindako lanagatik, 650 pezeta jasotzen ditu. 1925.eko udan jarraitzen du Gerhardek Gipuzkoako aditza jorrazten eta urriko bileran aurkezten du lana. Julio Urkixok RIEVen argitaratzeko eskaria egiten dio Euskaltzaindiari, eta onartzen da. Hil bereko 30ean Bilboko bulegoan dago Gerhard eta bigarren seihilabeteko beka kobratzen du, 1.000 pezetakoa, hala sinatuz “El pensionado, académico correspon-

diente". Abenduaren 7an bukatzen du Donostian honako lan hau: "Sobre el nombre de plomo en vascuence" (RIEV, 1926).

Bitartean, Karmelo Etxegarai euskaltzaina hil zen 1925.eko azaroaren 4an eta Azkuek idazten dio Bähr urgazleari haren aulkia eskainiz. Isaka Lopez Mendizabal proposatua zen, baina Azkuek ez zuen onartzen izendapen hori. Tolosarrak bere Hiztegia egiteko lekeitiarrak 1905/1906 urteetan argitaratutakoa baimenik gabe kopiatu zuela eta ez zion hori parkatzen. Arazoa konpontzeko irtenbideak proposatu zizkion Azkuek, baina ez ziren konpondu eta hortik zetorren legazpiarra aurkeztea. Azkenean, Bonifazio Etxegarai, Karmeloren anaia, izan zen izandaturia 1926.eko urtarrilaren 29an. Urte honen martxoaren 26an Euskaltzaindiak Bilbon egiten duen bileran agertzen da Bähr urgazlea. Filologia ikasketarako 1.000 pezetako dirulaguntza jasotzen du Gerhardek eta urriaren 7an, Göttingenen beste 1.000 pezetako erdia. Ikasketak bukatu ondoren Hannover-en kokatzen du bizilekua eta irakaskintzako zeregina. Hannover-en idazten du 1926.eko abenduaren 12an "Otra vez *eslata*, vallado de madera" lana (RIEV, 1927). Ordurako Friedrich aita ere hila zen eta familia Alemaniara itzuli zen.

Bähr euskalariak izan zuen maisurik handiena, Hurgo Schuchard, 1927.eko apirilaren 27an hil zen Grazen. Honen biografia idatzi zuen legazpiarrak eta Iruñean argitaratu 1928an: *Hugo Schuchardt zana*. Lan honetaz zera idatzi zuen Georges Lacombe euskaltzainak: "La brochure est écrite en excellent basque guipuzcoan" eta bi euskalarien iker lanak goraipatuz honako hau idatzi zuen: "Il ne suffit pas d'aimer la langue basque, il faut encore et surtout l'étudier".

Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuarekin zerikusirik ez daukan Hugo Schuchardten *Primitiae Linguae Vasconum* izenpeko ikerketari, Leizarragaren testu bat aztertzen baitu filologikoki, hitzaurrea jarri zion Schuchardtek berak., Hitzaurre honek 1923ko abuztuaren data darama, eta Bähr-ek Euskaltzaindiak urte bereko abuztuaren 8an agindako bileran irakurri zuen. Gero Halle hirian argitaratzen zen *Zeitschrift für Romanische Philologie* aldizkarian egin zion 1928an irazkina. Urte berean eman zigun Harz inguruetakoa Sankt Andreasbergen idatzi zuen "Los nombres vascos de la abeja, mariposa, rana y otros bichos" (RIEV, 1928). Hurrengo urtean, 1929-9-8an idazten du Hannover-en "Nombres de plantas en vascuence" (RIEV, 1929) eta azaroaren 24an "De Astronomía vasca" (RIEV, 1929), gai berbera ukituko duelarik 1931an euskaraz eta gaztelaniaz: "Ostraillika ta ostadarra Gipuzkoan" (*Euskera*, 1931, 51-61) eta "El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa" (RIEV, 1931). Lan hauetaz zera diotso Justo Garatek: "Continúe usted trabajando con ese método científico germánico y ese genuino vasquismo de Udana" Urte berean idatzi zituen Hannover-en "Alrededor de la mitología vasca" (RIEV, 1931) eta "De toponimia vasca" (RIEV, 1931). Azken lan hau Urkixori igorri zion 1930-10-26an, eta gutunean esaten zion Legazpiko artxiboa arakatzen ibili zela urte bereko abuztuan.

Schuchardt hil zenean beronen omenezko sari bat sortu zuen Euskaltzaindiak, 500 pezetakoa, lehendabizi *Usauri* elaberriarekin Agustin Anabitartek 1929an irabazi zuena. Berriz irabaziko zuen Anabitartek sari hau 1932an *Donostia* elaberriarekin. Bitartean, 1930.eko maiatzaren 26an, Gerhard Bähr urgazleari eman zioten Schuchardt saria “Los nombres de parentesco en vascuence” lanagatik. Hannover-en idatzi zuen lan hau 1930-3-28an, beraz saritua izan baino bi hilabete lehenago. *Euskera* boletinean agertu zen (1935, 3-42), separata gisa ere bai eta gero *La Gran Enciclopedia Vascan* (1968).

Hannover-en jarraitzen du lanean gure euskalariak. Gogoan dauka Juan Bautista Eguzkitzarekin 1923an izan zuen eztabaida eta 1931.eko ekainaren 23an zera idazten du: “Verbos compuestos, factitivos o causales ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo? (Respuesta al señor Eguzkitza)” (*Euskera*, 1933) Berunaz 1925ean idatzitakoari eusten dio berriz eta 1932-11-20an alemanez idazten du “Medrubiga = Die Bleistad?” eta geroxeago, urte bereko Gabon egunean, gaztelaniaz, “Medrubiga = la villa de plomo” (RIEV, 1933). Hurrengo urteko Gabon egunean, berriz, datatzen du irazkin bat, hots, Wilhelm Ziesemer “Das Land der Basken” liburuari dagokiona. 1934 urtean beste euskararekiko bi lan idatzi zituen Hannover-en: martxoaren 19an “El vasco y el camítico”, eta martxoaren 28an “Aurten, Geurtz, Igaz” (biak RIEVen, 1934an, argitaratuak).

Azkueren *Erizkizundi Irukoitzari* erantzunak eta Gipuzkoako aditz-jokoak biltzen ibili zela 1923an badakigu. Baina lexikografia lana burutzeko ere hainbat hitz bildu zituen, berak 1936an dioskunez. Euskalari askorekin harremanak izan ondoren, eta aipatzen dituen hainbat liburu eta aldizkari irakurri ondoren, RIEVen eman zigun lan baliotsu hau: “Nombres de animales en vascuence (etimología y folklore)”.

Azkenean geratzen zaigu Filologian doktoregoa lortzeko Göttingengo Unibertsitatean aurkeztu zuen tesia: *Baskisch und Iberisch*. Karl Boudak dioskunez 1940.eko martxoa baino lehen burutu zuen Bähr-ek tesia. Doktore berria 1945ean hil ondoren, Erika Micha alargunarengandik kopia bat ateratzea lortu zuen Boudak eta beronen hitzaurre batekin argitaratu zuen *Eusko Jakintza* aldizkarian 1948an. Euskarak eta hizkuntza iberikoak ez dutela zerikusirik frogatzen du Bähr-ek tesian. Oraingoan ez dator ados Schuchardt maisuarekin, bi hizkuntzen ahaidetasunaren aldekoa zen Grazeko irakaslea eta.

Doktoregoa lortu ondoren ez zuen lanean jarraitzeko aukerarik izan. Alemania gerran sartua zen eta Bähr-ek gaztelania zekienez, Espainiako batailoiekin (División Azul-ekin hain zuzen) Errusiatik ibili zen 1942/1944 bitartean, baina ez dut uste “nazi” pentsamoldekoa zenik, garai hartako ezinbesteko semea baizik. 1944.eko apirilaren 15ean Berlingo Itzultzaileen Akademiakoa zen. 1945.eko apirilaren 27an hil omen zen Berlinen, duela 50 urte. Legazpiko euskalari alemanari ospe, ohore eta eskerrona.